

## IKASTOLA DE RENTERIA 1972

# UN RETO A NUESTRO PUEBLO

Por MIKEL



AURTENGO IKASTAROA BUKATZEAROKOAN, GURE IKASTOLA'REN KANPAMENTUA.

Foto R. Múgica

Año tras año esta Revista ha sido, entre otros, un medio a través del cual hemos ido informando al pueblo de la marcha de la Ikastola.

Un centro de enseñanza tan peculiar como es éste, en el que deben cumplirse tres premisas indispensables, es decir,

- una buena enseñanza de la lengua vasca,
- un alto nivel educativo de la lengua oficial,
- unas cuotas lo más reducidas posible,

forzosamente tiene que vivir inmerso en una constante sucesión de problemas.

Para cumplir las dos primeras premisas era preciso contar con un profesorado eficaz. Este objetivo se ha cumplido a entera satisfacción, dado que actualmente se dispone de un equipo docente competente y de absoluta dedicación y confianza.

La tercera premisa, de absoluta implicación económica, ha ido resolviéndose gracias a la buena voluntad y eficaz ayuda de los socios con la aportación de sus cuotas y trabajo, y a la de las distintas entidades de nuestro pueblo, Ayuntamiento, Cajas de Ahorros y Laboral, etc., y a la Diputación.

Pero tanto los socios como los padres, ante la avalancha de solicitudes de ingreso de nuevo alumnado y, por tanto, el rechazo anual de un gran número de solicitantes, deseaban se aumentara el número de alumnos a ingresar cada año. Este deseo representaba una enorme carga para la Ikastola, pues cada alumno de nuevo ingreso aumenta el déficit económico y crea además un problema de espacio. Pero, este deseo de socios y padres era asimismo una hermosa obligación. Era, pues, de todo punto necesario atenderlo.

Forzosamente, se llega a nuestra actual situación, es decir: Pese a disponer de unos locales nuevos y amplios éstos han quedado desbordados; a duras penas pueden resolver el problema de espacio para el próximo curso.

¿Qué solución queda, pues, en Rentería?

Contar con la adquisición de más espacio en el centro de la población es imposible, pues, aunque contáramos con el mismo, la Ley, muy exigente en las condiciones que debe reunir cada escuela, naturalmente, no tolera nuevas escuelas que no reúnan una serie de condiciones. Así, pues, se plantea el problema de enfrentarse con la necesidad de prever

una nueva Ikastola amplia, capaz y que cumpla con lo que la Ley exige.

Siendo esto sólo posible en las afueras de Rentería, las gestiones de Directiva y la buena voluntad de un amante del euskera han hecho posible disponer de un terreno ideal (pertenecidos del caserío Añabitarte) a un precio terriblemente bajo.

La posesión de este terreno da a Ikastola la posibilidad de resolver para muchos años su problema de espacio. Resuelto, pues, éste, se plantea el siguiente:

- Es preciso llenar este terreno con AULAS, EDIFICIOS, CAMPOS DE RECREO Y DEPORTES, etc.

El éxito de Ikastola ha empujado a esta inevitable obra y es ahora cuando se plantea el problema de hacer nuestra Ikastola duradera y en consecuencia sus objetivos, es decir, es ahora cuando de cara al futuro podemos resolver en Rentería la pervivencia del euskera encuadrada además en un marco auténticamente educativo.

ESTE ES, PUES, EL RETO.

Somos nosotros, nuestra generación, quien debe realizar esta obra a nuestras expensas. Es posible que, resuelta por parte del Estado y con éxito la tremenda renovación del sistema educativo que ha iniciado, pueda beneficiar a la iniciativa privada colaborando en la gratuidad de la enseñanza, pero, en tanto llega esto, somos nosotros, es decir, toda la comunidad responsable de la importancia de conservar nuestro euskera, quienes debemos enfrentarnos y aceptar el reto. Que cada cual se responsabilice EN LA MEDIDA DE SUS POSIBILIDADES (aclaremos mal entendidos: a nadie se va a pedir que se enfrente con obligaciones que su situación económica no le permita).

Y a nivel personal, planteémonos previamente a nuestra decisión la siguiente pregunta:

- ¿MERECE VIVIR LA IKASTOLA? ¿CUMPLE UNA FUNCION QUE MEREZCA LA PENA CONSERVAR Y DESARROLLAR CON NUESTRO SACRIFICIO?

Y que con sinceridad, obtenida cada uno su respuesta, responda a ésta con integridad.

Mi más ferviente desea de que así sea.

# DEI BAT GURE HERRIARI

**MIKEL**

Aldizkari honetan, urtero egin ohi dugun bezela, aurten ere gure Ikastolaren berri eman nahi dizuegu.

Badira puntu batzuek, guk daramakigun ekintza honetan, nahi ta nahi ez, bete behar diranak.

Bata, Euskera behar bezela erakutsi.

Bigarren, Erdera beste edozein eskoletan bezela ikastarazi.

Azkenik, umeen ordaindu beharrak ahal diran ttikienak izan ditezela.

Zer esanik ez dago, helburu ahuek bete nahi baditugu, gure arazoak gure ekintzaren gisan handiak izan behar dutela.

Aitatu ditugun lehengo bi puntuak betetzeko, beharrezkoa dugu Irakasle iaio ta jakintsuak euki. Puntu hau, orain artean beintzat erabat iritxi dugu. Gure Ikastolan daudenak, jakintzaz aina espiritu ta gogoz bete betean bere lanari osorik emanak daudelako.

Hirugarren puntua nolabait erabaki dugu gure sozio ta bere lanaren bidez. Honetaz gainera, Herriko zeinbait Entidade, Udaletxe, Aurrezki Kutxak, Lankideen Aurreski Etxe eta abar... Ahaztu gabe ipiñi dezagun Diputazioak eskeintzen diguna ere.

Dena dela, guraso ta sozioak, erabat gainezkatuak ikusi dira Ikastolara sartzeko urtero urtero egiten diran eskabide ugariak ikusita. Eta era berean, zenbaiteri ta zenbaiteri, ezezkoa esan beharra iritxi danean, Horregaitik, urtetik urtera gero ta ume gehiago hartzea erabaki zen. Nola ordea? Gogoratu behar baita, gureganatzen den ume bakoitzeko «defizit» eta diru zorra handitu egiten dela. Eta leku aldetik ere, nun sartu?

Une honetan, badirudi arazoaren sakontasun berak aginduta, gu guztion ekintza indartu egin dela ta gure lanaren zabaltasun eta edertasun guziaz burutu gerala. Arazo gaitz eta zailak izan arren, nolabait erabaki behar ziren.

Beraz, bide-gurutze batean arkitu gera. Gure lokalak eder ta ugariak dira. Baina, guziak utsa dira gure umeak sartzeko. Itsasopean irentsita geratu den ugartea bezela geratzen dira. Eta, ozta-ozta, datorren urterako izango diran eskabideak onartzeko aina leku geratzen zaigu.

Zer soluzio eman, beraz, gure arazo garrantzitsueri?

Alper lana izango litzake, herriaren erdian lokal gehiago hartzea. Are ta gehiago, oraingo Irakaskintzako Lege berri zorrotzak agintzen ditun zer-nola guztiak erabakitzeko. Beraz, eskuratu nahi dugun Ikastolak gure umeak merezi duten ainakoa ta Lege Berriak agintzen ditun baldintza guztiak beteko dituana izan beharko luke.

Esanak esan, Ikastolako Batzordea herri multzotik kanpora dauden lur eder batzuetara begira jarri zan. Beronen jabeak, euskalzale fina izanik, azkenean izan zitezkean salneurri onenean saldu zun. Lur hauek Anabitarteko baserriarenak dira.

Lur hau bide dela, Errenderiko Ikastolak erabaki ditzazke, beste zenbait urteetan sortu dezaizkioken arazo guztiak. Hori honela delarik, ta ariari jarraituz, behar beharrezkoa dugu, gure lur berria, Ikastola zabal, jolas leku, Deportetoki ta beste guztietaz jaztea.

Eta orain artean gure Ikastolak eraman dun jeupada gerora begira ekintza iraunkor bat izan dedin, guztiok erealitatea egitera ustekabean behartu gera. Iñori etzaio burutik ahazten, Ikastola honen gero horri lotua dagola, gure Errenderiko Euskeraren geroa. Eta Euskeraren etorkizun hori, jakintza maillan jarria ez bada ez da posible beste moduetara Euskera salbatzea.

Eta, herritarrok, HAUXE DA GURE DEIA.

Gu gera, gaurko egunez, Errenderiko lurraren gainean bizi geranok, ez gerokoak, lanbide hau egin behar dugunok. Eta gure poltsikoko dirutik gainera. Badira bideak, Estaduak eskeintzen ditunak, naiz irakaskintza ordaindu gabekoa ta ortarako behar diran gelak altxatzeko behar dan dirua beregaitik artzeko modua.

Hori etortzen baldin bada, betor. Eta ongi etorria. Guk gure ahalegin guztiak egingo ditugu. Baina bein bitartean, gu gera, GU, gaurko bizilagunok, lan ardatzari eldu eta ekin behar diogunok. Asko da egin nahi deguna. Herri bat, Errenderi euskaldun bat egin nahi dugu, ta hori ez da edozer gauza!

Beraz, norberak, bere barruak eta bere diru-bideak egintzen dion neurrian lagundu beza. Eta, norbait bildurtuta balego, ezin dezaken laguntza eskatuko zaiolako, bego lasai, iñori etzaio eskatuko ezin dezakeanik eta.

Eta, azkenik, galderatxo bat, denok egin behar duguna:

- MEREZI AL DU IKASTOLARI LAGUNTZEA? MEREZI OTE DU IKASTOLAK BETETZEN EDO BETE DEZAKEAN EKINTZA HORREK GURE SAKRIFIZIOA?

Galdera honi erantzunda, bakoitzak, burutu beza bere erantzukizuna, barruak agintzen dion neurrian.

Eta zer gehiago? - Nere gogorik haundiena, auxe izango litzakela, alegia.